

# DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 290. zenbakia. 2020ko ekaina



**Peio Goikoetxea,  
bideari ekiteko gogoz**

# ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA



## IKASTARO TRINKOA IRAILEAN

Irailaren 1etik 28ra

Goizez 9:00-13:00

edo Arratsaldez 16:00-20:00

## MATRIKULA ZABALIK

Ekainaren 22tik uztailaren 3ra

## AZTERKETA OFIZIALAK URRIAN

**BEKAK / Langabetuek erdia**

MAILAK	
B2 (2. Maila)	C1 (3. Maila)



**INFORMAZIOA TELEFONOZ EDO EMAILEZ**

**9:30-12:30 eta 16:00-19:00**

**ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA**

Teresa Murga Eraikina

Goienkale, z/g 2. Solairua

Tf.: 943 17 09 25

[euskaltegia@udalermua.net](mailto:euskaltegia@udalermua.net)

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Amaia Arginzoniz,  
Estibalitz González,  
Libe Solozabal  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA  
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Peio Goikoetxea.

**LAGUNTAILEAK:**

Igone Amesti,  
Antonio Hernández 'Cuco',  
Patxi López,  
Alicia Lorenzo  
eta Valentin Mugarza.

**ARGAZKIAK:**

Antxitxiketan aisialdi taldea,  
Alboka Musika Eskola,  
Txabi Arnal,  
Peio Goikoetxea,  
Garazi Mugarza,  
Valentin Mugarza,  
Arrate Onandia,  
Ermuko Udala  
eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Piedi Eizagirre,  
Ibon Txurruka  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

11 33-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-21 3/1994.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

Gaia: San Juan kantua.

## Nik ikusi nituan

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Nik ikusi nituan,  
San Juan gabian,  
Txomin eta Bartolo  
tabernako atian.

Hormia zalakuan  
batak besteari,  
txis eitxen zion  
zar-zar  
praketan alkarri!



## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4

Arrate Onandia (Ingalaterra)

ELKARRIZKETA .....5-7

Libe Solozabal

MALLABIAN ZER? .....8-9

Garazi Mugarza

ERREPORTAJEA .....10-11

Armagentza gurean (I)

ERREPORTAJEA .....12-13

Antxitxiketan taldearen 25. urteurrena

ERMUAN ZER? .....14

Irene Basagoiti gai-jartzaile

MOTZEAN .....15-16

Txabi Arnalen *Argalas* liburua

KIROLZALE .....17

Peio Goikoetxea txirrundularia

IRITZIA .....18

Normaltasuna eraikitzen

ZORION-AGURRAK .....19

Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK .....20


Ermuko eta Mallabiko argazkiak

SAREAN GALDEZKA .....21

Antolatutako aurteneko oporrak?

UZTAILEKO AGENDA ...22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

# Arrate Onandia



1983ko urtarrilean joan zen Londresera bizitzera. Arrate Onandia ermuarrak ondo gogoratzen du data hura, bidaia horrekin bere bizitzako ametsa bete baitzuen.

## - Zergatik erabaki zenuen Londresera joatea?

Nire ahizpa Ane Londresera joan zen nik 12 urte nituela. Han au pair aritu zen bi urtez, eta nik oso gogokoak nituen bidaltzen zizkigun gutunak, bizi zen familiaren ohiturak eta horrelakoak idazten baitzizkigun. Baina Londreseko hiriko kontuak ere bidaltzen zizkigun, eta horiek irakurtzea maite nuen gehien: zein ederrak ziren Trafalgar Square, Picadilly Circus, Oxford Street, Hyde Park; zer antzezlan ikusi zituen... Zenbat gauza eder! Gainera, ingelesa ere ikasi zuela zioen, eta nik hizkuntza ikastea desio nuen. Eta jeloskor, Londresen bizitzera joango nintzela amesten nuen.

## - Erabaki erraza izan zen?

Bai, niretzat bai. Nire ametsa zen. Ez hainbeste nire amarentzat. Amari Londresera joan nahi nuela esan nionean 18 urte nituen. Hitzeman nion ingelesa ikasi eta etxera itzuliko nintzela. Erantsi nion besapean ingeles-ziurtagiriarekin itzuliko nintzela, eta nire euskara-maila hobetuko nuela, ingeleseko irakasle izateko. Amatek erantzun zidan gaztezia nintzela, ez oso heldua, eta tankera horretako beste hainbat gauza. Baina, bi urte geroago, alde egin nuen, Ana eta Marian lagunekin batera.

## - Nolakoak izan ziren lehen egunak?

Camden Town auzoan bizi nintzen hasieran, bost logelako etxebizitza handi batean. *Squat* bat zen: Guk tasak eta



1983an,  
Candem  
Towneko  
apartamentuan.

elektrizitatea ordaintzen genituen, baina ez alokairua. Nire lehenengo sei hilabeteak Londresen liluragarriak izan ziren. Lana aurkitu nuen Baker kaleko hotel txiki batean, goizez; arratsaldetan Londresen barrera ibiltzen nintzen, goira eta behera.

## - Zerk harritu zintuen gehien?

Londres zein handia den! Banekien, noski, handia zela, baina iritsi eta lau egunera ohartu nintzen benetan horretaz, zortzi orduz ibili bainintzen galduta hara eta hona, lan baten bila nenbilela. Jendeari ez nion ezertxo ere ulertzen baina, azkenean, hura lasaitasuna: 24. zenbakiko autobusa ikusi nuen, Camden Town auzora zihoana. Lehena eta azkena, ez zitzaidan berriro horrelakorik gertatu: Norbaitek *The A to Z* liburuaz hitz egin zidan. Besteak beste, Londresko kale guztien mapak eta metroaren mapa agertzen dira bertan, eta horrekin konpondu nintzen, oso ondo konpondu ere.

## - Joan aurretik ingelesa menperatzen zenuen?

Eskolan irakatsi ziguten oso oinarrizko ingelesa neureganatu nuen, ez gehiago. Pentsatzen nuen horrekin moldatuko nintzela "Egun on", "Zer moduz?" "Nongoa zara" eta horrelakoak esan eta ulertzeko. Baina, bai zera! Camden Town auzoan 6 hilabetez bizi ondoren, ederki asko ibiliz baina ingelesa ikasi gabe, au pair hasi nintzen familia ingeles batean. Gainera, ingelesezko eskola batera joan nintzen, eta, gutxira, David ezagutu nuen, nire senar ingelesa. Ezkondu ginen, Eli eta John seme-alabak izan, eta Londreseratu egin nintzen. Beharko ingelesa ikasi!!!

## - Zerbaiten falta sentitzen zenuen?

Hasieran batez ere, familiaren, lagunaren eta gure kulturaren falta sentitzen nuen. Garai hartan ez zen batere merkea bidaiatzea, eta Ermura behin bakarrik, gehienez bitan, itzultzen nintzen urtean zehar. Azken urteotan gehiagotan herriratzen naiz, David eta biok erretiratuta gaude-eta.



## - Lan egiteko aukera izan duzu?

Ingalaterran aukera asko daude *child-minder* bezala lan egiteko: tokiko administrazioan izena emanez gero, zure etxean bertan lan egin dezakezu eskolaurreko haurtxoak zaintzen. Gurasoek beren seme-alabak ekartzen dizkizute lanerako bidean, eta jasotzera itzultzen dira etxeratzen direnean. Horrek asko erraztu zidan bizitza, Eli eta Jonh seme-alabak nik neuk zaintzeko aukera izan bainuen; izan ere, familiarik ez nuen bertan. Geroago, dementziadunak zaintzen zituen egoitza batean lanean hasi nintzen, eta dementziaren arloan diplomatu nintzen. Horren ondotik, Jardueren Koordinatzaile izendatu ninduten. Lan oso aberasgarria izan zen niretzat, eta egun ere asko gogoratzen naiz garai horretaz, ordutik 5 urte igaro diren arren.

## - Zer egiten duzu denbora librean?

Erretiratu ginenetik, han eta hemen ibiltzea asko gustatzen zaigu Davidi eta bioi. Donejakue Bidearen tarte asko eginak ditugu, eta ez gaitu beldurtzen sarri-sarri bidaiatzen ibiltzeak. Ermuan ere askotan agertzen gara familia eta lagunak bisitatzera. Cadizen ere gure egonaldiak egiten ditugu udaberrian eta udazkenean.

## - Noiz izan zinen Ermuan azkenekoz?

Otsailaren amaieran, konfinamendua hasi baino zertxobait lehenago. Asteburu bikaina igaro genuen, eta Usurbilen ere izan ginen familiarekin, sagardotegi batean.

## - Ermura bizitzera itzuliko zarela uste al duzu?

Nork jakin etorkizunak zer ekarriko digun...! Dena den, egun ere ez gara oso arrotzak Ermuko herri maite horretan.

Dorleta Vidal



Libe Solozabal, Euskaraldiko Ermuko dinamizatzailea:

## “Nahiko nuke jendeak borondatezko atxikimendua egitea gure hizkuntzari”

Duela hilabete pasatxo hartu zuen Libe Solozabal ermuarrak Euskaraldiaren gidaritza herrian. Espero baino beranduago ekin dio lanari, egungo egoerak eraginda besteak beste, baina jakin badaki euskararen esparruan lan handia dagoela egiteko Ermuan. Eta gogotsu dago. Bere lehen erronka izan da ekainaren 6an Ermuan Bagara antolatzea, itxialditik irteteko baldintzak errespetatzeak ekimenaren oihartzuna apaldu duen arren.

- **Pertsona euskalduna, euskaltzalea eta aktibo baten bila zebiltzala zioen lan-eskaintzak...**

Facebooken irakurri nuen lan-eskaintza, eta korreo masibo batean heldu zitzaidan gero. Interesgarria iruditu zitzaidan, baina ez nuen ezer egin, zalantzak nituelako. San Lorentzo eskolako jantokian egiten nuen lan momentu hartan, eta lankide batek komentatu zidan aproposa izan nitekeela. Etxekoek ere animatu ninduten. Uste dut lan egokia dela niretzat, baina hasiera nahiko zaila izan da.

- **Euskararekiko interesa izan duzu beti?**

Bizitza guztian zehar izan dut euskararekin lotura. Taldeei dagokienez, Antxixiketaneke begiralea izan naiz azken lauzpabost urteetan, eta talde horren helburu nagusia da euskara sustatzea Ermuan, haur, gazte eta helduen artean, aisialdiko ekimen ezberdinak egiten. Horrez gain, atletismoko begiralea izan naiz aurten, eta talde horrek euskararen sustapenarekin harreman zuzena ez izan arren, nik euskaraz hitz egin izan diet bertakoei. Saiatzen naiz nire bizitzako esparru guztietan euskara zabaltzen. Izan ere, bizitza euskaraz egiten dut: etxean, kuadrillarekin... Pertsona zehatzekin bakarrik egiten dut gaztelaniaz, benetan ezin dudalako euska-

raz egin. Euskara oso garrantzitsua da nire bizitzan, eta berau Ermuan zabaltzea ere.

- **Hortaz, pozgarria izango zaizu Euskaraldian dinamizatzaile lana burutzea...**

Bai. Gainera, egitasmo honen inguruan dabilen jendea oso gertukoa egiten zait, eta niretzako oso erraza da eremu sozial horretan mugitzea.

- **Dinamizatzaile bezala, zein da zure zeregina zehatz-mehatz?**

Azaroaren 20tik abenduaren 3ra bitartean burutuko den Euskaraldiko Ermuko dinamizatzailea naiz, eta nire kontratua horretara bideratuta dago, baina gehiago ere bada. Esango nuke euskararen inguruan herrian antolatzen diren gauza informalak eta formalak dinamizatzaile naizela, Ermuko Euskaltzaleen Sarearen dinamizatzailea, alegia. Kolektibo eta banakako ezberdinek osatzen dute sare hori, eta haiek gabe nire lanak ez dauka zentzurik, haiek proposatzen dituzten euskarazko ekimenak aurrera eramatea delako nire ardura. Ezinbestekoa iruditzen zait sare bizirik mantentzea, zabaltzea eta indartzea, eta haien ekimenak dinamizatzea eta koordinatzea.

- **Zer esan nahi du "dinamizatzaile" hitzak?**

Egia esan, hasieran ez nekien oso ondo zer zen dina-



mizatzaile, edo hobe esanda, zertan zetzan. Lanean daradan hilabetean ikusi dut lana dela koordinatzea, harremanak egitea edo daudekin mantentzen ahalegintzea, zabaltzea eta kolektibo ezberdinekin euskara indartzen duten gauzak aurrera eramaten saiatzea, eta euskaraz hitz egiteko esparruak sortzea. Hiruzpalau pertsona ditut ondoan, talde motore batean, eta horrez gain, Batzorde bat dago. Batzordea momentu honetan hilda dago, eta kontaktu batzuen zain nago lehenbailehen aktibatzeko. Beste herri gehienetan martxan dauden arren, Ermuan ez da oraindik berpiztu. Espero dut irailean gauzak aldatzea, taldekideak mugiaraztea klabea delako nire lana egin ahal izateko.

- **Euskaraldiaren bigarren edizioak berrikuntzarik ekarriko du?**

Lehen edizioan Ahobizi eta Belarriprest figurak agertu ziren, eta bata edo

bestea aukeratzea erabaki pertsonala zen. Aurten entitateen Ariguneak gehituko dira. Ariguneak dendetan, tabernetan, edozein mota-tako elkarteetan eta lantegietan sortu daitezke, besteak beste, eta euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartzen duten taldeak izango dira, ahobiziek edota belarriprestek osatuta. Kasu honetan erabakia taldean hartuko da, eta konpromisoa sendoagoa izango da. Horri zabalkundea emateko lanean hasi behar gara laster, baina izena emateko epea zabalik dago jada.

- **Nola joan zen duela bi urteko edizioa Ermuan?**

Jendearen erantzuna ona izan zen. Nazio mailako egitasmoa da hau, eta aurten dinamika horretan sartu behar gara, gainontzeko herriekin batera egin behar ditugu gauzak. Egia da badaudela Ermua baino herri euskaldunagoak, eta horietan lanketa errazagoa da...

**"Itxialdiarekin euskararen espazio asko galdu dira"**



**Caperos**

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**OSASUNA · ESTETIKA EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat baino gehiago!!*

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

**- Itxialdiak eragina izango du Euskaraldian?**

Nik uste dut baietz. Euskaraldiko antolatzaileek datak eta epeak zehazten dituzte, eta data horiek luzatu egin behar izan dira jada. Herriari dagokionez, gainera, Ermuan Bagara ohi bezala ospatu ez izanak ere eragina izango du, kaleko dinamika hori galdu delako. Halaber, etxean egon behar izateak ondorioak izan ditu askorentzat. Batzuk euskaraz kalean bakarrik egiten dute: lagunekin, eskolan edo lanean. Azken asteetan

etxekotasunera mugatu gara, eta batzuk ez dute etxean euskaraz hitz egiteko aukerarik. Eta aukera izanda ere, etxeko hizkuntza-ohitura aldatzea oso zaila da. Euskararen espazio asko galdu egin dira. Baina tira, igual dinamika eta molde berriak hartu ahal ditugu, honetatik ikasi behar dugu beste modu batera eragiten. Egungo egoerak laguntzen ez duen arren, euskarak beti izan ditu trabak eta mugak, eta argi eta garbi ikusten ari naiz orain. Erakundeen aldetik, esaterako. Eta

**“Euskarak beti izan ditu trabak eta mugak, eta argi eta garbi ikusten ari naiz orain”**

seguruenik egungo egoerak eraginda, nire proposamen gehienek ezezko erantzunak jasoko dituzte.

**- Zein da zure helburua dinamizatzaile bezala?**

Pentsatzen dut Ermuan lan handia egin behar dela euskararekin. Ermuko Euskaltzaileen Sarea sortu zenetik, lan hori egiten hasi zen, eta jende gehiagorengana heltzen da, jendeak konpromisoa dauka, eta erantzun onak jasoko dira. Ermua herri handia da, eta ez da oso euskalduna, baina egundoko euskal komunitatea dauka. Nire helburua da komunitate hori sendotzeaz gain, handitzea. Baina ez dut nahi jendeak inposizio bezala ikustea euskaraz, nahiko nuke jendeak atxi-

kimendua egitea gure hizkuntzari borondatez, eta horretan eragingo dut. Nire nahia da Ermuan euskaraz bizi ahal izatea, inolako traba barik. Hitz potoloak dira, baina horretara goaz.

**- Zure hasiera baina, gazi-goza izan da. Zer nolako balorazioa egiten duzu aurtengo Ermuan Bagaraz?**


Ezin izan dugu gauza handirik prestatu, konfinamendua dela-eta. Kamisetak jartzeko deia egin genion jendeari, eta bideo bat prestatu ere. Aipatzekotan, Eskolabarraren inplikazioa nabarmenduko nuke, irakasleena zein ikasleena. Uste dut lan handia egiten dutela euskararen alde.

Dorleta Vidal



# FEREDU

## SOLUTIONS S.L.



- \* HEZETASUNAK
- \* ERREHABILITAZIOA
- \* INPERMEABILIZAZIOAK
- \* MANTENIMENDUAK
- \* IGOGAILUAK
- \* ERREFORMAK
- \* FATXADAK
- \* ITE
- \* TEILATUAK
- \* GARBIKETAK

[www.feredusolutions.com](http://www.feredusolutions.com)  
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

Garazi Mugarza, erizaina:

# “Birusa ez da jungo, ikesi biherko dogu berakin bizitzen”

**Familia eta Komunitate Arretako espezialitatea amaitzen ziharduen bitartean, Koronabirusak hankaz gora jarri zuen Garazi Mugarza mallabitarraren egunerokotasuna martxoan. Egoiliar lana laga eta Covid-19a zuten gaixoak artatu behar zituela jakinarazi zioten, kutsatu eta hildako kopurua unerik gorenean zegoenean, kaosa nagusi eta babes ekipoen falta egunero salatzen zenean. Donostiako Osasun Publikoko Sailean amaitu zuen espezialitatea maitzeman eta, egunotan, Galdakaoko Ospitalean dihardu, zainketa epidemiologikoko sarean.**



## - Non egokitu zaizu lan egitea koronabirusaren krisialdi honetan?

Denpora gehixena Eibarko Ospittelien emon dot, hillebete inguru, eta gogorra baino gogorraue ein jata! Egun batetik bestera Covid-19xe eken gaixuek atendizeko solairu bat zabaldu eben, eta egun batetik bestera itxi, langillioek isolatu bihar izen giñelako.

## - Nolatan bada?

Kontue da hasieran paziente positibuekin egon biher giñela, eta egun batzuk geruago, kutsatuen kopuruek behera zoienez, jakinarazi zoskuen gaixotasune pasautako

pazienteekin egon biher giñela. Oso menpeko pazientiek zien, adiñien gora zoienez, erreanimau ezin zienak, baina etxien egoteko moduen ez euazenak be. Gaberdi baten, hildako ugari izen zittuen egoitza batetik 8 paziente ekarri oskuezen. Denpora asko pasau gendun eurekin (jarrera-aldaketak eitten, tratamientuek jarten, pardelak aldatzen, ulterak zaintzen...), eta handik astebetera 4 positibo izen genduzen. Langillioek ez geneukanez iñolako babesik, isolatu egin biher izen giñen, eta solairu osue itxi zan. Desastre bat!

## - Hain handia izan da material urritasuna?

Bai, momentu batzuetan maskara bera hainbet egunetan erabili biher izen dogu. Positibuekin egon eta gero, bota eitten gendun; baiña sintomak izen arren, konfirmaute ez zeuzen pazientiekin egon eta gero, ostera, plastikozko poltsa batiertan sartu, eta gorde.

## - Kutsatzeko beldurra izan duzu?

Eibarren egon nintzenien, ixte seguru neuen kutsatute neuela, baiña ez, positibo gitxi egon zien langillion artien.

## - Pertsonal aldetik ere, gabeziak egon dira?

Jende gehixoa estimatuko genduke, ez dogulako izen paziente baktokaz ez denpora nahikoik, ez hurbilttasun gehixauaz bihera eitteko aukeraik. Kontutuen izen biher da honek gaixuok hillebete luzietan bakarrik egon diela ospital bateko gela baten... eta bueno, ahalagindu gara tratatu ahalik eta hurrekuena emoten eta maittasun handixenaz bihera eitten.

## - Osasungintzan, ez zegoen aurreikusita horrela pandemia zabaldu zitekeenik?

Nik neuk ez neban espero! Epidemiologiak bazittun datuek, baiña ospitalak eta

ARKITEKTURA ESTUDIOA  
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU  
ZUK ERABAKI  
www.spara.es  
info@spara.es  
Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia 943 17 70 57

**ZERMik**  
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMik INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com  
Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12



langillioek ezustien harrapau gaittu. Eta ez die baliabidiek prestau, ez da planifikau...

**- Inolako formakuntzarik izan duzu?**

Formaziño dezente emon doskue babes ekipuek zelau kendu biher diren azaltzeko. Beste alde batetik, protokoluak egunero aldatzen zien, eta horrek eguneratzeko bai ein dala ahalegin bat.

**- Atzera begira, nolako balorazioa egiten duzu bizitakoaz?**

Hillabete kaotikuek izen die, ezegonkortasun haundikuek. Egun batetik bestera jakinarazi oskuen ospitalera jun biher giñela, noz arte zehaztu barik, lanaldi luzekin... Eta oso egoera gogorak egon die, pertsona batzuk hillabetietan egon dielako bakarrik; gaixoak eta bakarrik. Adiñeko jentiaz egon naz gehixen bat eta, zalantza barik, honetan guztian nagusixek izen die kaltetuek, eta eurak ikusi dabe gaixotasune gordinen. Uste dot gizartiek, orokorrien, onartute deukela adiñekuek dala hiltzen dana. Baiña ez dot uste egoera horretan hiltzie ez onargarrixe ezta duiñe danik. Senidiei bideo-deixek eitten laguntzen geuntsen, eta behin baiño gehixotan ein dot negar.

**- Beste momentu batzuetan, ordea, irribarra etorri zaizu ezpainetara?**

Baitte. Gougen deuket gure solairuen edade haundiko gizon bat euela, oso menpekue, eta illuntziro, 8retan, leihoraino eruateko eskatze oskuen txaluek joteko. Guretzako berezi-berezixe zan.

**- Covid-19ak jotako gaixoak artatzen jarraitzen duzu?**

Ez. Gauzak lasaitzen hasi zirenen, Osasun Zentrora bueltau nintzen, espezialidie amaitzeko. Bueltau eta 3 egunetara jakinarazi oskuen egoiliarro Donostiako epidemiologian hasiko giñela biharrien, Osasun Sailak martxan jarri eban zaintza eta kontrol epidemiologikoko proiektuen. 36 erizain gaok, medikuntza prebentiboko bihargiñek, lan osasunekuek, epidemiologuek... Honen helburue da agerraldixek saihestie positibo barrixen arrastuek jarraitute, transmisio katie mozten ahalegintzie.

**- Zein da zure betebeharrak zehatz-mehatz?**

Lan telefonikue eitten dot gehixen bat. Aurreko egunien PCR proban positibo emon daben pazienteen zerrenda helarazten doskue laborategitik, eta horrek gaixuok aurreko bi egunetan izendako kontaktu estuen arrastue ja-

rraittu biher dogu. Horrek kontaktuoi deittu biher dotsague, 14 egunetz isolatzeko eskatu eta jarraipena ein, sintomak agertu ezkeru, beste iñor ez kutsatzeko.

**- Nola erantzuten diote kontaktu horiek zuen eskaerari?**

Orokorrien, ondo. Guk deittu orduko, gehixenek bada-kixe kutsatute egon leikezela, gaixuek berak esanda. Baiña badie gure deixe esperu ez dabezenak, eta arazuren bat be izen dogu.

**- Zer deritzozu deseskalatzearen erritmoari?**

Uste dut prixa larregi dauela. Alde batetik, jentiek kalera urteteko eta oportetara juteko gogo itzela daka, eta ulergarrixe da. Baina horretaz aparte, esango neuke interes politikuek be badaozela. Egixe esan, harrittute geratu naz osungintzan dauen presio politikuez jabetzeran.

**- Udazkenera begira, zer aurreikuspen daude?**

Bilddur haundixe dago, udazkenien agertzen dielako arnas-sintoma gehixenak, eta egon dan hildako kopuru itzelerako oso jende gitxi immunizau da. Hirugarren fase honetan ezer gertau izen ez balitz lez gabiz kalien, eta epidemiologuek diñue udaz-



kenien seguruenik beste agerraldi bat egongo dala.

**- Esperantza dago txertoa lortzeko datozen hilabeteotan?**

Nik uste dot txertuaren kontue luzerako doielu, ikerketa klinikuek ein biher dielako, entsaiuek... eta gero erabaki biherko da biztanleriaren zein sektoreri ipiñiko jakon txertuori. Birusa hemen dago, ez da jungo, eta nire ustez horrekin bizitzen ikesi biherko dogu.

Dorleta Vidal



**ZUZENBIDE KONTUAK**  
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com




Menuak. ospakizunak...  
Erdikokale 11 · Tel. 846 666 533



- Toldoak  
- Ostalaritzarako muntaiak  
- Pertsianak  
- Instalakuntzak eta konponketak  
- Motorizazioa

- Manparak  
- Segurtasun pertsianak  
- Pertsiana dekoratiboak  
- Estoreak  
- Eltxo-sareak

Tallerra:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com

# Armagentza gurean (I)

**Bertako industria jarduerak zerikusi zuzena du burdina eta honen eraldaketarekin. Mendeak atzeragoko tradizio ferrona baten eta haren ondorengo armagentzan topatu behar ditugu gaur egunekoaren aztarnak.**

**B**urdina egon ez gure parajeotan eta mineral horrekin lotutako jarduera betidanik errotuta egotearen arrazoiak, historiagileen ustetan hainbat aldagairi erreparatuta ulertu daitezke: nahi beste ur izatea, indar hidrauliko bezala erabiltzeko; inguruko basoetako zuhaitz ugaritasuna, egur-ikatz sortzeko ezinbesteko; burdina ustiatzen zen meategiekiko gertutasuna; tramo batzuetako Deba ibaiaren nabigarritasuna, ekoizturikoa itsasoratzeko bide; terrenoaren orografia malkartsua, babesa ahalbidetzen zuena; egokitze trebetasuna, ofizioak izandako gora-behera guztiei aurre egiteko lagun ona beti...

Burdinaren ustiaketan Bizkaiko meatzalde ingurua erreferente izan zen bezala, haren eraldaketa prozesuak Gipuzkoa eta Nafarroako hainbat lekuri begira jartzen gaitu. Berauetan kokatutako burdinolek (Debabarreanean bakarrik XV. mendean hogeitabat zeunden), arrabioa urtu eta egu-

neroko bizimodurako tresnak egiteaz gain, armak ere egiten zituzten: ballestak, lantzak... Ondorioz, olagizonetatik armagnetara transmitutako jakindura mende mende eta belaunaldi belaunaldi bidaiatu zuen. Hasierako arma zorrotzak egiten garatutako ezaguera eta eskarmentua, gerora su-izkiluetan jakin zuten aplikatzen; kalitatezko langaiak erabiliz, zidarra edo urrearekin edertuz, artisautza lan bikainak atera ziren gure armaginen eskuetatik, asko eta asko benetako artelanak. Entzute handia izan dute munduan barrena bailara honetako arkabuz, errebolber, abankarga, laban, pistola eta eskopeta; Europako historia ere bestelakoa izango zen lurralde desberdinen eraso edota defentsan tresna horiek egon ez baziren.

XIX. mendean ondo sartuta ere, eskuz egiten zen prozesu guztia eta ekoizpena ordenantza gremial batzuetara zegoen mugatuta. Azterketa bat gaudituta eta nahikoa ezaguera eta maisutza erakutsi behar zen gre-



Santiago Salaverriaren izkillu-olea, Ermuko Zubiaurre kalean.

mioetako baten sartzeko: kanoigileena, txispaginena, kaxaginena eta aparejuginena. Ez dira imajinatu behar gaur eguneko lantegiaren ikuspuntutik: familia arteko tailer txikietan egiten zuten lan, euren etxe edo base-rrietan zein etxepeko peoretan.

## Historia kronologikoki

Burdina eta armak gure historiaren ardatz izan diren zantzuak, ondoko ibilbide kronologikoan:

**1372.** Don Juan Infanteak Ermuari ematen dio bere sorrerako hiri-gutuna, errota eta burdinolak jartzea ahalbidetuz. Mallabiak ez du

ziurtatzen duen dokumenturik, hiribildu beharrean elizatea delako.

**1420.** Ganboatar eta onaztar bandokideen arteko borrokaldi sutsuak; lehenengo aldiz jasotzen da idatziz su-armak erabiltzen direla.

**1424.** Deba ibarreko burdinolekako jarduerak, garrantzitsua da ordurako.

**1458.** Idatziz agertzen da Ermua "villa ferrera d'Herma" bezala. Aurrerago, "ferrona" legez ere izendatuko dute.

**1481.** Eibarren lonbardak egiten direla aipatzen duen lehen eskuizkribua.

**1513.** Altxolako erreka-portua martxan dago eta Debatik Europara zabaltzen dira produktoak.

Iberikoetan  
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

Drogetenituri, 290 zk.



PUB YOMY

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

1516. Plazentziako 141 espigarda eramaten dira Eibarrera, Ermuan kulatak jarrri ostean. Mendeetan, hauek egiteko intxaurren do-egurra erabiliko da, bere gogortasun, kalitate, kolore-gama eta armaren heldulekuari ematen dion edertasunagatik.

1521. Entzute handikoa da bailarako armaginen trebakuntza armen eskulangintzan.

1573. Felipe II.aren aginduz, Plazentziako Armen Errege Fabrika eraikitzen da, Eibar, Elgoibar eta Ermuko armaginen ekoizpena biltzen duen administrazio-organoa. Haren bitartez Gaztelako koroaren eskaerak bermatzen dira, honen

funtzionarioen esku geratuz bere kudeaketa.

1728. Real Compañía Guipuzcoana de Caracas erakundeak hartzen du armen kontrola, Gaztelako koroa eta Plazentziako Errege Fabriken arteko birtartekari lanak eginez.

1770. Ermuak 8 errota eta burdinola bat du; idatzizko iturri desberdinen arabera, kopuruak aldakorak dira.

1794. Frantsesek Ermua eta Eibar erasotu eta erre egiten dituzte. Estrategikoki muga ondoan egoteak duen arriskua saihesteko, arma fabrika berri bat eraikitzen da Trubian, Asturiasen. Euskal armagintzaren gainbehera dakar horrek,

eskaera faltagatik eta armagin asko eta askoren exodoagatik.

1864. Delmasek idazten du Ermuko industria printzipala armen giltzak eta egurrezko kaxak egitean datzala, armon kanoiak ere bertan eginez. Bidaiari honen berbetan: "Ermuko semeen izaera orokorrean belikosoa da eta egiten duten lanbidearen izaeratik dator: Sei Urteko gerran Bizkaiko baitailoietan bereizten ziren, borroketan zuten bizitasunagatik eta armak erabiltzeko trebeziagatik."

1898. Ermuan arma kontrabandoa antzematen da; inplikaturik ezinik dabilta.

1913. Eibarko Eskola Armeria inauguratzen da. Ohiko bihurtzen da ermuar eta mallabitar gazteen artean, egunez tailarrean edo baserrian lan egin ostean, iluntzean Armeriara joatea, *nocturna*.

1914. Ermuko alkateak, armagintza erabat geldituta dagoela argudiatuz, Diputazioan laguntza eskatzen du langileen krisia samurtzeko, baina ezetza jasotzen du. Ermua eta Mallabia, biak ala biak agertzen dira Zona Armera izendapenaren barruan.

1915. I Guda Mundiala. Eskaerak iristen dira Ingalaterra, Frantzia eta Italiatik.

1919. Eibarren, bailarako armaginen ekimenez, Armen Probaderu Ofiziala jartzen da, aurrerantzean Estatu osoko armak frogatu eta egiaztatuko dituen.

1920. Krisi berria armagintzan. Dibertsifikaziozko lehen pausuk ematen dira.

1924. Ermuko armaginen batzorde batek herrian sortu gura duten sozietate baten estatutuak aurkezten ditu Gobernu Zibilean.

1926. Prezioen jaitsiera berri baten ondorioz, sektoreak beste krisi bat jasaten du.

1931. Neurria gerora samurtu bazen ere, Azaña ministroaren aginduz armak egitea debekatzen da eta Eibar, Ermua, Gernika eta Plazentziako lantegiak ekoizten duten guztia konfiskatzen da, baita baserrietakoa ere.

1939. Armagintza albo batera utzi eta bizikleta, elektrogailu txiki eta eguneroko tresnak ekoiztera egiten dute jauzi aktibo jarraitu eta errekonbertsiorako bidea hartzen duten tailerrek. Urteak beranduago etorriko da automozio sektoreari egingadako ekarpena.

Estibalitz González



1835ko eskopeta-errebolbera, oparitzeko fabrikatu zena eta kanoiean "Rdo. de Ermua" grabatuta dakarrena.

**Plan B**  
Coffee Lounge      Gin & Beer

**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA**  
**PALACIOS SM**  
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
GREMIOEN KUDEAKETA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com  
**660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23**

**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK  
Tel.: 94 659 01 41 - 618 89 29 60  
E-maila: info@enolimp.es  
48620 Ermua (Bizkaia)  
Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak  
[www.enolimp.es](http://www.enolimp.es)

**Horacio Decoración**  
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK  
VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
[www.dghoraciodecoracion.com](http://www.dghoraciodecoracion.com)

# 25 urte, milaka bizipen

25 urte dira Antxitxiketan Ermuko Euskal Begirale Taldea hasi zenetik herriko haur eta gaztetxoentzako aisialdi ekintzak prestatzen. Euskara oinarri izanik Euskal Herriko txoko askotan ibili eta Ermuko kaleak kolorez eta irriz jantzi dituzte.

25 urte hauetan abentura eta istorio asko bizi izan dituzte modu batean edo bestean familia honen parte izan diren guztiek. Asko dago ospatzeko baina, tamalez, aurtengo egoera dela-eta, ezin izango dute ekainaren 20rako prestatuta zuten egitaraua burutu.

Hala ere, taldeak eskerrak eman nahi dizkie herriko haur, gazte eta familia guztiei, urte guzti hauetan jasotako babesarengatik. Jaia pendiente geratuko da denok elkartu, eta elkarrekin kandlei putz egiteko aukera dagoenerako.



## ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

## FUB

Mediku psikiatra  
Psikoterapia psikoanalitikoak  
Psikosomatika

## Fernando Urizar Barandiaran

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04  
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06  
furizar1@yahoo.com

## NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA



San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com



  
**hanigan's**  
 Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
 Asteburu eta jaiegunetan,  
 10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527 

Bitsi-denda Tailer propicia Erloju-denda

  
**Senén**  
 1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
 www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

**mari asun** 

LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

  
**CITROËN**  
 Autos AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pb.  
 Telefonoa 943 17 04 14

Ferreteria **ANBOTO** Burdindegia

Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu



943 17 69 76 ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
 607 33 11 77 www.ferreteriaanboto.es

**Desiak**  
 PSIKOLOGIA  
 ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA

Nahia Rojo Bustinduy  
 Psikologoa eta Sexologoa

Hitzorduak: 688 85 18 95

Irene Basagoiti, gai-jartzailea:

# “Publikuak eskertzen dau batzuetan nonor kinkan jartzia”

**Berrizko Bertso Eskolan izena eman zuen duela bizpahiru urte, eta Miren Amurizaren ondoan trebatzen dihardu Irene Basagoiti ermuarrak. Plazaren bat egindakoa dagoeneko, gai-jartzaile lanak burutuko ditu uztailaren 4an Orbe Kardinalaren plazan burutuko den bertso jaialdian.**

**- Nola hartu zenuen gai-jartzaile izateko proposamena?**

Asier Ibaibarriagak deitu osten. Bera eta Unai Rodriguez ibili dira azken urtietan, baiña Unaiak bihar zeban baten batek errelebua hartzia. Ni ez nintzen kanturako atrebitzen, eta esan osten ia gai-jartzaile nahi neban. Eta baietz.

**- Ez zenuen zalantzarik izan?**

Ez, egin bihar da. Eta gainera esan osten gaixek prestatzen lagunduko ostiela eta beno, laguntasunaz, hobeto.

**- Hasi zara gaiak pentsatzen?**

Baten bat dekot pentsatuta, baiña ondiñok ez.

**- Koronabirusa ez aipatzea ezinezkoa izango da...**

Euki dot pentsaute ez emotia inportantzia haundirik, ze dakagun informaziñua larregikua da, baiña nahi eta nahi ez agertu biharko da nunbaitxetik.

**- Zelan eragiten du gai-jartzailearen lanak saioaren arrakastan?**

Nik uste dot badekola garrantzia. Askotan ematen dau disimulatuta doiala, baiña bertsolariak eroso egoteko, eta saio on bat egiteko, gaixek onak izan bihar die, eta bertsolariak ondo eruaten jakin bihar dau. Oholtzan laguntzaile bezala sentitzia inportantia da.

**- Erronka-jartzaile baino, laguntzaile?**

Publikuak eskertuko dau erronka apur bat be, batzuetan nonor kinkan jartzia, zirikatzia apur bat... Baiña saiuaren tonikie ezin da hori izan.

**- Saioan parte hartuko duten bertsolariak ezagutzen dituzu?**

Izenez bai. Bertsoan ere entzun ditzut, eta gitxi gora behera badakit nolakuak diran... Ezagututa, gaixek pertsonalizauek izan al die, baiña horrek ekarri al dau askotan bertsolari batez estereotipoa sortzen dala, eta gai berdinak joaten jakozela beti. Ez ezagutzian, hori saihestu ahal da.



**- Azken urteotan gai-jartzaileari garrantzia gehiago ematen zaio?**

Igual bai, eztaikit. Euren partetik be badago saiakera bat, baiña ez da protagonismo nahia saiuaren bertan, baizik eta dakan garrantzia ematia nahi dabela. Azkenaldian ere gaixen tematikia asko aldatu da, txapelketetan ikusi ahal da klaramente. Oin dala 40 urtetik hona ikusten da genero perspektibatik zelan aldatu dien, eta gaixak lehen askoz be zehatzaguak zien. Oin bakarkako gaixak oso zabalak die eta bertsolariak erabaki bihar dau gai horren barruan nun kokatu.

**- Horrek bertsolarien lana erraztu du?**

Eztakit, diferentia da. Zati baten erraztu bai, azkenian bertsolariak erabaki ahal dabelako nundik jorratu, eta ideia bat pentsauta badake, ixa edozein gairi heldu ahal dotze ideia horrekin. Lehen, pertsona eta egoera zehatz bat emoten zotzuen, eta hortik moldatu bihar zinan.

**- Zer espero duzu saio honetaz?**

Nik uste dot ondo urtengo dala. Bertsolariak izenekoak dira, nibela dau. Eta Asierren eta Unairen laguntzaz gai politxak urtengo dira.

Dorleta Vidal

**Proba-Leku**  
Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
**Tel. 943 17 05 42**

**SEHIGA**  
PROTECCION LABORAL  
PLAN BABESERAKO  
ORNDURA

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**T** XALAPARTA  
ABERNA

Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGVAK 943 030 299**

## Txabi Arnalek ipuin berria kaleratu du



Ongarai auzoan hazitako idazle honek euskarazko edizioan *Argalas* eta gaztelaniazkoan *Huesos* izenburua daraman ipuina argitaratu berri du, eta herriko liburu dendetan eskuragarri dago jadanik. Heriotzak eta doluak haur literaturan duten presentzia

eta ematen zaion trataera urteetan ikertu ostean, gai horri bere ekarpen literarioa egin nahi izan dio, nolabaiteko didaktikeria albo batera uzten ahaleginduz. Txakur baten bitartez galerak sortzen dituen sentimenduak bistaratu nahi izan ditu ermuarrak bere 34. liburua den honetan, eta Julio Antonio Blasco ilustratzailea izan du beste behin ondoan, bion arteko zazpi-garren lanari argia emanez.

## Zaporeak GKEak hainbat tona elikagai eta 5.250 euro bildu ditu



Ermuko eta Eibarko bizilagunek, Udalek eta hainbat kirol taldek Zaporeak Gobernu Kanpoko Erakundearen elkartasun-deiari erantzun diote. Jesus González eta Mireia Alonso sukaldariak sustatutako ekimen honetarako 1.000 kilo arroz eta dilista eman dituzte Ermuko eta Eibarko Udalek hurrenez hurren, eta

beste 300 kilo SD Eibarrek eta Athletic Clubek. Horrez gain, herri bi hauetako bizilagunek, elikagaiez gain, konpresak, pardelak eta toallitak eman dituzte. Jasotako materiala eta zozketa solidarioarekin eta errazio salmentekin jasotako dirua, Greziako Lesbos irlako errefuxiatuei helaraziko zaizkie. Ekimen honek 4.000 kilo lekale eta 4.000 euro jaso zituen iaz. (Argazkia: Ermuko Udala).

### MALLABIKO LIBURUTEGIA ZABALDU DUTE

Ekainaren 2an Mallabiko Udalen Liburutegiaren ateak zabaldu ziren berriro ere, aforo mugatuarekin. Momentuz ez da egongo egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko aukera, eta 12 urtetik beherakoak heldu batekin joan beharko dira. Orduetgia: astelehenetik ostiralera 16:00etatik 19:00etara.

### KULTUR HAMABOSTALDIA BURUTU ZEN MALLABIAN EKAINAREN HASIERAN

Ekainaren 5etik 7ra bitartean burutu da aurtengo Kultur Hamabostaldia Mallabian. Hiru mendi-dokumental, bertso-saio musikatua, nekazaritza eta artisautez azoka eta helduentzako eta umeentzako ikuskizunak bildu ziren egitarauan, eta ekitaldi guztietan aforoa mugatua izan zen. Bestalde, aurten ezin izan dira gauzatu herriko elkarteek kultur hamabostaldirako antolatu ohi dituzten ekintzak, eta elkarteek hainbat bideo prestatu dituzte euren jarduerak ezagutzera emateko eta zabaltzeko. Mallabiko Udalaren webgunean ikus daitezke bideo horiek, "Herria" atalean.

### UDALEKUAK BURUTUKO DIRA MALLABIAN

Ekainaren 29tik uztailaren 24ra bitartean udalekuak egingo dira Mallabian. 4 eta 12 urte bitarteko 40 umeentzako ekintzak prestatu ditu Satxibu aisialdi taldeak, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara burutuko direnak.

**SAN ANTONIO**  
OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaiaeta, 40 Tël. 17 00 63

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**  
Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen

## TXINDURRI TXISTU ETA DANTZA TALDEAK MATRIKULA ZABALDU DU 2015EAN JAIO DIRENTZAT

2015ean jaiotako umeek Txindurri Txistu eta Dantza taldean izena eman ahalko dute aurtun. Interesa dutenek 686 714 112 telefonora whatsapp mezua bidali beharko dute, eta umearen izen abizenak eta adina adierazi. Izena emateko epea uztailaren 10ean bukatuko da, eta taldeko arduradunek jakinarazi dutenez, ume nagusiagoen matrikulak ere onartuko dituzte.

## UDAL KIROLDEGIAK URTEKO KUOTAREN LAURDENA ITZULI DIE BAZKIDEEI

Ia 89.000 euro itzuli die Ermuko Udal Kiroldegia 4.800 bazkideei, instalazioak 3 hilabete itxita egon baitira koronabirusaren pandemiaren eraginez. Urteko kuota urtarrilean ordaindu zutenek kopuru hauek jaso dituzte: familia abonua dutenek 49,55€; banakakoek, 31,14€; eta juniorrek 18,45€. Bestalde, ekainaren 15etik aurrera udal kirol instalazioak zabalik daude berriro ere, eta bertaratu nahi direnek segurtasun eta higiene neurriak bete beharko dituzte.

## Alboka Musika Eskolak izena emateko epea zabaldu du

Irailetik aurrera, ohiko eskaintzari ekingo dio Alboka Musika Eskolak: haize-, korda- eta perkusio-instrumentuak jotzen ikasteko eskolak, musika taldeak eta abesbatzak, besteak beste. Hori dela-eta, matrikulatzeko epea zabaldu dute, eta ekaina guztian zehar egongo da zabalik. Izena emateko edo informazio gehiago jaso zeko, Musika Eskolara joan daiteke (10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 18:00etara), 943 17 12 98 telefonora deitu edo albokamusikaeskola@hotmail.com helbidera mezua bidali. Bertako arduradunek gogorarazi dute adin guztietako lagunak matrikulatu daitezkeela (5 urtetik aurrera). Bestalde, uztailaren 24an ekitaldia eskainiko dute Albokako ikasleek Txindurri taldearekin batera, eta online entseatzan ari dira egunotan. "Hilabete arraro hauek igaro eta gero, kalera irteteko gogotsu gaude, ilusioz beteta", diote Eskolatik.



## Debabarreneko industria eredia berpiztearen aldeko adierazpena sinatu da

Ekainaren 11n, industria jarduera eta enplegua indartzea helburu duen Debabarreneko industria eredia berpiztearen aldeko adierazpena sinatu zuten Basque Precision Technology District (BPTD) Enpresa Elkartek eta Debabarreneko alkateek. Hitzarmen honen helburuak hauek dira: BPTD Enpresa Elkartearen lankidetzak jarduerak babestea, eskualdearen eta industriaren alde; eskualdearen industrializazio jasangarria indartzeko eta hobetzeko bokazioa areagotzea, klima errespetatuz; ahalegin publiko-privatu horretan, Udalez gaindiko administrazioen parte hartzea eskatzea, lurralde-oreka hobetu eta Debabarrenaren ahalegin eta bokazioa industrialia gehiago aitortzeko; eta inguruko eskualdeekin elkar hartzea lurralde oreka ahalbidetuko duen estrategia bat lantzeko. BPTD Enpresa Elkarteak duela urtebete sortu zen, Debabarreneko industria enpresek bul-tzatuta. 40 bazkide inguru ditu, eta bertako kideak dira, besteak beste, Engranajes Ureta, Danobat Group eta Microdeco enpresak.

Komunitateak

# San Pelayo

Aholkularitza juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

OINAK

LEIRE MAYORA

# PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

SAGARDUI  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

# solozabal tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33

optika  
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51



Peio Goikoetxea, txirrindularia:

# “Txarrenari onena ateratzen saiatuko gara”

**Peio Goikoetxeak 2016an egin zuen profesionaletara salto Kolonbiako talde batean. Txikitako ametsa egia bihurtu zitzaion 2018an, Euskaltel-Euskadi taldeak fitxatu zuenean, baina azkenaldiko bidea aldapan gora egiten ari da ermuarra.**

**- Konfinamenduak etenaldia ekarri du kirol profesionalaren esparrura ere. Nola eragin dio eten horrek txirrindularitzari?**

Egunero ordu asko pasatzen ditugu errepidean libre, eta gogorra da sasoiko egoteko egindako lan guztia horrela galtzea. Lehenengo egunetik etxean geratu ginen, eta zorrotz bete ditugu arauak. Bizitza galdu dutenekin alderatuta, sasoia galtzea ez da ezer.

**- Denboraldiaren zein sasoitan harrapatu zaituzte itxialdiak?**

Hasieran esan dezakegu. Nik Argentinan ekin nion urteari urtarilaren bukaeran, eta astero lasterketak genituen Europa osoan zehar. Esan beharra daukat konfinamendua hasi baino bi aste lehenago erradioa eta kubitua hautsi nituela Frantziako lasterketa batean, eta bizikletan ibili gabe nengoela. Mendian oinez nenbilela deitu zidaten etxean sartuko gintuztela esateko.

**- Etxean entrenatzeko aukera izan duzu?**

Bai. Prestatzaileak plan-gintza bidaltzen zigun astero, eta gehienez jarraitu dut, baina zoratu gabe. Argi neukan besoa sendatzea zela lehenasuna, eta entrenatuko nuela berriro errepidera irteterakoan. Goizetan arrabola egiten nuen; arratsalde, berriz, gimnasia, luzaketak edo bigarren arrabola saioa egiten ematen nuen.

**- Harremanetan egon zara beste txirrindulari batzuekin? Besteen berri izateak aurrera egiten lagundu dizu?**

Askotan egin ditugu saioak Zoom eta Skype bidez. Ordu asko pasatu ditugu bakoitzak bere etxetik pedalei eragiten eta isildu gabe. Gaur egun smart arrabolak badaude, eta aukera asko ematen dute.

**- Itxialdia eta gero, sentazio berezia izan zenuen errepidera irten zinen lehen aldian?**

Jakina, berriro ere aske sentitu nintzen. Profesionalak



lehenago askatu gintuzten, eta errepidea guretzako bakarrik edukitzea oso sentazio arraroa izan zen: banatzaileek eta guk bakarrik erabiltzen genuen. Hori bai, lehenengo egunetik argi nuen lan asko egin beharko nuela berriro sasoiko egoteko.

**- Nola dago txirrindularitzaren egutegia? Noiz ekingo zaie lasterketei?**

Berez, abuztuaren hasieran hasi, eta bizpahiru hilabetetan izango ditugu lasterketa guztiak.

**- Zeintzuk dira denboraldi honetarako dituzun aurreikuspenak?**

Aurten bukatuko zait kontratua, eta gustatuko litzaidake berritzea. Lesioekin zorte txarra eduki dut, baina oraindik asko daukat taldeari emateko eta laguntzeko. Garaipen batekin berritzen badut, hobeto.

**- Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Ondo. Egia da egoera honek asko aldatuko duela kirolaren ekonomia, baina beste gauza guztiakin gertatuko denez, seguru normaltasunera bueltatuko dela. Askok galdu dugu, baina txarrenari onena ateratzen saiatuko gara.

Dorleta Vidal



**uriarte asesores** ✓

**Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza**

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia

## Normaltasuna eraikitzen

**N**ere buruari zin egin nion ez nuela honi buruz idatziko, baina ezinezkoa egin zait. Osasun-krisi honek dena aldatu du, baita gure hizkuntza ere. Nork esango zigun gure egunerokotasunean holako hitzak behin eta berriz errepikatuko genituela? Konfinamendua, segurtasun distantzia, berrogeialdia, eskuak garbitu, telelana, bideo-deiak, gel hidroalkoholikoa eta nire kuttunena: normaltasun berria. Azken honekin txundituta nago. Nork asmatu du hitz joko hau? Zergatik hitz hori? Ukitu ilun bat ikusten diot nik.

Behin eta berriz errepikatzen ditugenez, gure bizitzan helburu bihurtu da. Denon helburu: bai gauza asko aldatu behar direla pentsatzen dugunona ("berri" hitz horri helduta), baita pandemia baino lehen egiten genituen gau-

zak berreskuratu behar direla pentsatzen dutenena ere ("normaltasun" hitzari eusten). Denok kontent!

Egia da konfinamendua eta gero "normaltasunera" bueltatzeko gogoak izugarriak direla. Gure egunerokotasuneko hainbat gauza izugarri faltan bota ditugu, eta prest gaude gauza horiek berreskuratzeko, jarri diguten "bidesari" hori ordaintzeko prest ere, baina pena litzateke gure ikasketa bakarrak honakoetan laburbiltzea: "masterra" maskaretan, bi metroko distantzia ze handia izan daitekeen eta atea ukondoarekin zabaldu eta ipurdiarekin nola itxi.

Uste dut agerian geratu dela oinarrizko zerbitzu publikoen garrantzia, beraz, ezinbestekoa izan beharko litzateke zerbitzu horiek indartzea, adibidez. Eta



*Alicia Lorenzo*

orain arte ikusezinak ziruditen sektoreek (baina bizitzarako funtsezkoak direla erakutsi digutenek) merezitako lekua izan behar dutela. Esaterako: zaintzaileak, garbitzaileak, supermerkatuko langileak...

Eta zer esanik ez, kolpe batez aldatu behar izan ditugun beste hainbat gauza, agerian lagata ez ginela gauzak ondo egiten ari: kontsumitzeko era, mugitzeko era, bizi garen lekuak (eta ez bakarrik balkoia izan edo ez), jaten duguna, lan egiteko era, zaintzak, dauzkagun lehenetsiak, naturarekiko harremanak... Gure normaltasun berrian, *berri* gehiago eta *normaltasun* gutxiago egon beharko litzatekeela uste dut.

“Egunerokotasuneko hainbat gauza berreskuratzeko, prest gaude jarri diguten “bidesaria” ordaintzeko”

**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

ileapaindegia  
**Silvia**  
peluquería

Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00

943 170474

688819336

Dejate  
**QUERER**  
BERRIA  
ERMUA

**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolajea
- \* Ervillak
- \* Giltzak
- \* Savrilaqintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**KRABI**  
ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5 ERMUA

## LAN BILA

Orduka edo jornada erdiz, pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketarako egiten. Berehala hasi naiteke. Esperientzia daukat.  
© 632 415 374

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketarako lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka.  
© 681 310 989.



Ekainaren 16an  
Zorionak Ane etxekoan partez!  
Muxu handi bat, guapa!



Ekainaren 19an  
Zorionak Vega!!!  
Oso ondo pasa zure 3. urtebetetzean!!!  
Muxu pila familia guztiaren partez!!!  
Askok maite zaitugu sorgintxo!!!



Ekainak 15  
Zorionak Aiala!  
Jada 9 urte gurekin.  
Musu handi bat familia osoaren partez.



Abuztuaren 20an  
Zorionak maitia!!!  
Askok maite zaitugu!!!  
Ondo pasa eta musu handia etxekoan partez.



Ekainaren 9an  
Zorionak Oihane!!  
3 urte jada!!!  
Egun zoragarria izan. Muxu asko etxekoan partez.  
Segi hain alai printzesa!!



Uztailaren 4an eta 16an  
Zorionak Aimar eta Alaia! Gure bizitzetako motore zarete. Infinituraino maite zaituztegu. Muxu asko aitatxo eta amatxoren partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

Azken eguna:  
**Uztailaren 15a.**

**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK  
IRAKASKUNTZA  
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea  
943 17 90 37  
[enter@informaticaenter.com](mailto:enter@informaticaenter.com)

**arral**  
arral97.com

Telf.: 943 17 60 75  
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

[arral@arral97.com](mailto:arral@arral97.com) - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

**Kopi-Fax**

FOTOKOPIAK  
KOLOREZKO FOTOKOPIAK  
HANDIPENAK - TXIKIPENAK  
PLANOAK - AZALEZTAPENAK  
FAX PUBLIKOAK  
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**SAN PELAYO**  
Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

Zuri egokitzen den odontologia  
La odontología que se adapta a ti

• P.A.D.I  
• IMQ  
• SANITAS  
• DENTYRED  
• AZKARAN  
• OCASO

943 17 04 04  
[info@clnicasanpelayo.com](mailto:info@clnicasanpelayo.com)  
San Pelayo Zeharkalea 5  
48260 Ermua (Bizkaia)

Hamburguesería  
**TITANIC**

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

## MALLABIA 1996

Argazki hau 1996 urtean aterata dago. Bertan Mallabiko futbol taldeko futbolariak agertzen dira: Rafael Rubias, Jose Manuel Alvarez, Gabriel Barranco, Jonatan Azkondo, Mikel Magno, Xabier Ozaeta, Oier Flores, Jorge Moreno, Iñigo Pradera, Ivan Garcia, Jose Vicente Ramos, Manuel Moreno, Albano Luque, Iñaki Apolinario, Carlos Perez eta Oscar Alvarez.



## ERMUA 1970



1970eko ekainaren 20a eta 21a. Teodoro Zuazua abadea Ermura etorri zela 25 urte betetzen zirela-eta, egun biko ospakizunak egin ziren herrian. Angel Mari Areitioaurtenak plazan, Udaletxe parean jarritako oholztatik umez betetako argazki hau kliskatu zuen. 50 urte beranduago Ermuko jaiotza datak ez dauka ordukoarekin ezta kolorerik ere ez! 1972ko urtarrilean 15.998 pertsona bizi ziren herrian eta data berdintsuan 2020an 16.217, orduko ia kopuru beretsua; baina... gaur egun 0 urtetik 14ra bitarteko 2.404 neska-mutiko dauden moduan, orduko datuen arabera 5.433 ziren adin tarte horretakoak, gaur egunekoan bikoitza baino gehiago. Beti izan gara ugariak eta erretratuari erreparatzea besterik ez dago!

**KARABIXA**

**KARABIXA KAFETEGIA**  
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Eskuz egindako  
terapietan adituak

**ARTROS**  
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua  
617 680 156  
[www.fisioterapiamanualartros.com](http://www.fisioterapiamanualartros.com)


**DROGETEN** ITURRI

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

Aldizkaria doan  
jaso nahi duzu?

943 179350  
688 632876  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

Oporretarako denbora gutxi geratzen den arren, askok ez dute oraindik erabaki zer egingo duten udako atsedendian. Eta zuk, antolatu dituzu aurtengo oporrak? Nola?



■ Bai: 55 boto.

■ Ez: 83 boto.

Ekainaren 11tik 18ra egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 138 boto jaso dira Euskal Biruseko Facebooken.

● **Pepi Vizuite Hernandez** Ni ez naiz joango. Ez naiz inoiz abuztuan joaten, eta aurten are gutxiago, eta hondartzara ezta ere.

● **Torres Ruiz Araceli** Gu aurten etxean geratuko gara.

● **Olga Rubio** Ni ere zuek bezala. Horrela gure osasunak irabaziko du. Etorriko dira garai hobeak.

● **Ana Hanais** Gu guztiok herrira goaz. Nire seme-alabak ez daude oso gogotsu, baina konformatu behar.

● **Piedi Eizagirre** Gu Bañareseko campingera.

● **José Antonio Iglesias** Ahal dudanean Puerto Saguntora joango naiz: Mediterraneo itsasoa, harea xehea, ur epela eta eguzkia. Minak eta berrogeialdiaren itxialdia sendatzeko.

● **Nekane Olalde Azkarate** Etxean, aurten etxean eta hemen inguruan, egun bateko irteerak eta etxera. Ez naiz fidatzen. Ez dakigu nola erantzungo duen koko madarikatuak, eta nola bukatuko den kontua. Diruari dagokionez, ez da urterik onena, eta ez dakigu zer ekarriko digun udazkenak. Hortaz, aurten Euskadi sakon ezagutuko dugu.

● **Javi Ochoa Alonso** Nire familia eta ni Andaluziako camping batean, bungalowean. Zaindu beharreko neurriak berdinak izango dira joaten garen lekura joanda. Distantzia, maskara eta eskuak garbitzea.



# Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

IZASKUN TXURRUKA

Gaien kale 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com

**ZIRKUA**

**Hilaren 3an:**  
Kicirque.  
San Pelaio plazan,  
20:30ean.

**BERTSO-SAIOA**

**Hilaren 4an:**  
Josune Aramendi,  
Eneko Fernandez,  
Asier Galarza,  
Eli Pagola,  
Miren Artetxe  
eta Xabier Igoa.  
Gai-jartzailea:  
Irene Basagoiti.  
Orbe Kardinalaren  
plazan, 19:30ean.

**KONTZERTUA**

**Hilaren 4an:**  
Tito Ramirez Band.  
San Pelaio plazan,  
19:30ean.

**UMEENTZAKO  
IKUSKIZUNA**

**Hilaren 5ean:**  
"Pon ta Pa",  
Bapatean Zirkoa taldea.  
San Pelaio plazan,  
19:30ean.

**KONTZERTUA**

**Hilaren 10ean:**  
La Basu.  
San Pelaio plazan,  
20:30ean.

**KONTZERTUA**

**Hilaren 11n:**  
Gari & Maldanbera.  
Orbe Kardinalaren  
plazan, 19:30ean.

**KONTZERTUA**

**Hilaren 11n:**  
Versionarios.  
San Pelaio plazan,  
19:30ean.

**UMEENTZAKO  
IKUSKIZUNA**

**Hilaren 12an:**  
"Babo Royal",  
Ganso & Cia taldea.  
San Pelaio plazan,  
19:00etan.

**DANTZA**

**Hilaren 17an:**  
"Festamentua".  
Tio Teronen semeak.  
San Pelaio plazan,  
20:30ean.

**KONTZERTUA**

**Hilaren 18an:**  
Mustapha Agharban  
Azarkan.  
Orbe Kardinalaren  
plazan, 19:30ean.

**KONTZERTUA**

**Hilaren 18an:**  
Una Vocal Harmony  
taldea.  
San Pelaio plazan,  
19:30ean.

**UMEENTZAKO  
IKUSKIZUNA**

**Hilaren 19an:**  
"Futbolariak eta  
printzesak",  
Eidabe taldea.  
San Pelaio plazan,  
19:00etan.

**MUSIKA ETA  
DANTZA**

**Hilaren 24an:**  
Alboka Musika Eskolako  
trikitilariak eta Txindurri  
taldea.  
San Pelaio plazan,  
20:30ean.

**BAKARHIZKETA**

**Hilaren 25ean:**  
"Ttak". Xabi Artieda.  
Orbe Kardinalaren  
plazan, 19:30ean.

**ZIRKUA**

**Hilaren 25ean:**  
"Áureo". Uparte taldea.  
San Pelaio plazan,  
19:30ean.

**UMEENTZAKO  
IKUSKIZUNA**

**Hilaren 26an:**  
"Petitxou",  
Gari, Montxo eta  
Joselontxo.  
San Pelaio plazan,  
19:00etan.

**ERAKUSKETA**

**Hilaren 1etik 23ra:**  
"Burdina eta ahotsa",  
eskulturak,  
Joseba Gotzon.  
Lobianon,  
18:00etatik 20:00etara.

Ekimen guztietan aforoa  
mugatua izango da, eta  
aldez aurretik jaso  
beharko dira sarrerak.

Patxi López



**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**PRO  
arraindegia**



**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

**Infreñu  
Taberna**



Kardena Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)

# PON TA PA zirko eta antzerkia

Bapatean Zirko taldea

Uztailaren 5ean, igandea  
19:00etan, San Pelaiko parkean

ANTOLATZAILEA



Ermuko  
Udala

LAGUNTZAILEA



Euskal  
Birusa  
Elkartea



# Ugaro

asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA  
ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA  
tel. 943 174344 • [ugaro@ugaro.com](mailto:ugaro@ugaro.com)

Agente eskusibook:

**Allianz**   
Seguros

Gure eskeintza berria,  
Ekimen berria,  
Zuekin batera egiteko nahia.

Mañeko lantaldea  
zain daukazue!



Erreserbak:  
610 222 468  
[www.mañe.eus](http://www.mañe.eus)

 **Mañeko**  
Etxeko Janariak